# ZER,
# HASTEN GARA BERRIRO?

# ZER,
# GARA BERRIRO?

# ZER,

# *HASIKO* GARA BERRIRO?

# ZER,
# *HASIKO* GARA BERRIRO?

Gero eta zabalduago daude hiztunen artean honelako kalkoak:

dugu kafe bat?

Forma egokia geroaldikoa da:

***Hartuko dugu*** kafe bat?

**Adi!** **Bereiz dezagun galdera hauen esanahia:**

# Etor**tzen** zara bulegora?

*Informazio-eskea (egunero, maiz edo noizean behin etortzen ote zaren galdetzen dizut; ez daiteke, inola ere, eskabidetzat har).*

# Etorri**ko** zara bulegora?

*Eskabidea (zu bulegora etortzea nahi dut).*

Eskabideak eta proposamenak egiteko, galderazkoa erabiltzen da sarri:

***Ekarriko didazu***, mesedez, liburu hori?

didazu, mesedez, liburu hori?

Baina galderarik gabeko asko ere molde berekoak dira:

Tira, ba, etxean ***utziko zaitut***, eta ***etorriko naiz*** gero zure bila, ondo iruditzen bazaizu.

Tira, ba, etxean , eta gero zure bila, ondo iruditzen bazaizu.

**Nori :** peru.altzugarai@unib.eus
**Nork:** andone.elorz@unib.eus
**Gaia:** txostena
**Cc:**
**Bcc:**
**Erantsia:** Dokumentuak eta Ezarpenak\Nire agiriak\Txostena.doc\

Adiskide hori:

Honekin batera doakizu prostituzioa ezeztatzearen aldeko agiria. *Nahi baduzu, oraintxe hitz egiten dugu horretaz.

Ez adiorik.

A. Elorz.

**Nori:** peru.altzugarai@unib.eus
**Nork:** andone.elorz@unib.eus
**Gaia:** txostena
**Cc:**
**Bcc:**
**Erantsia:** Dokumentuak eta Ezarpenak\Nire agiriak\Txostena.doc\

Adiskide hori:

Honekin batera doakizu prostituzioa ezeztatzearen aldeko agiria. Nahi baduzu, oraintxe ***hitz egingo*** dugu horretaz.

Ez adiorik.

A. Elorz.

# GALDERAZKO BESTE ADIBIDE BATZUK:

***Utziko didazu*** pixka batean egoten?

Zer, andereño, ***egingo dugu*** sokasaltoan?

***Egingo dugu*** bilera?

# GALDERARIK GABEKO ADIBIDE BAT:

Orduan, hamarretan ***jarriko dugu*** hitzordua…, ***itxaron (iezadazu)*** han pixka batean, eta elkarrekin ***joango gara*** berehala.

*jartzen dugu* *itxaroten*
*didazu* *joaten gara*

## Estilo-aukera gisa, agintera erabil daiteke, esanahi berarekin (bigarren pertsonakoetan):

***Utziko didazu*** hitz bi esaten?
***Uztazu*** hitz bi esaten.

# Edo subjuntiboa (lehen pertsonetan):

Beraz, honetantxe ***utziko dugu*** gaia gaurkoz.
Beraz, ***utz dezagun*** honetantxe gaia gaurkoz.

# Batzuetan, jakina, bada bestelako aukerarik ere:

Zer iruditzen zaizu kafe bat hartzen badugu?

ZER,

BUKATUKO DUGU HASITAKOA?